

Familia agurgarria,
egun on eta eta barkatu jai egun batean hau bidaltzeagatik.
Jasotzen ari garen informazio mordoaren artean, idatzi honi ere begirada emateko tartetxoa eskatu nahi dizugu.
Dakizuenez **Osasun Egoera Larrian** gaude eta ohikoak ez diren neurri batzuk hartu behar izan dira.
Lasai egon, elkarri lagunduz eta jarraibideei kasu eginez, **gaindituko dugu!**

Kalera ateratzea ez dago gomendatua nahitaezkoa ez bada eta, bestalde, eskolarekin jarraitu beharra daukagu.

Lezo Institutuan azken urteetan egin dugun egokitzapen prozesuari esker, ezusteko erronka honi aurre egiteko prest sentitzen gara, beraz, zuen seme alabekin **telelanaren** bidez arituko gara. Nahiz eta hasiera korapilatsua izango den, guztion laguntza eta pazientziarekin, etxean egon beharreko denboralditxo hau estimulanteaz gain, probetxuzkoa ere izatea espero dugu.

Hor doa gure asmoa:

Bihar, astelehena, goizeko 08:00etan hasiko gara etxetik lan egiten. Ikasleak eta irakasleak ere bai, noski. Garaiz jeiki, ongi gosaldu, ordenagailua piztu eta lanerako prest eseriko gara.

Ikasleek bide desberdinetatik jasoko dituzte zereginak(Classroom, Moodle edo posta elektronikoa), beraz, erne egon, eta lezoinstitutua.net-eko korreoa irekita eduki dezatela. Irakasleok agindutakoa egiten joango dira ikasleak, ahal den neurrian, eguneroko ordutegiari jarraituz.

Ikasle bakoitzak orduz-ordu “fitxatu” egingo du. Horretarako prestatutako dokumentu batean, ikasleak bere izena jartzen joan beharko du, esan bezala, orduz ordu. Ez dugu nota hau gehiegi luzatu nahi, izan ere zure seme-alabaren lezoinstitutua.net-eko korreotan informazio gehiago edukiko duzu eskura (lana egiteko argibideak, epeak...), baita **Lezo Institutuaren webgunean** ere.

Edozein arazo izanez gero, jarri gurekin harremanetan ohiko moduetan.

Notak korreo arruntaz bidali ditugula, berretsi nahi dizugu eta espero dugu laster zure etxeko posta kutxan jasotzea.
Ikasgunean ere ikus daitezke, bihartik aurrera bertan erregistratuta baldin bazaudete, bestela erraza da erregistratzea.

Besterik gabe,
agur bero bat,
eta
laster berriro Lezo Institutuan ikusiko dugu elkar!

Lezo Institutuko Zuzendaritza.